

**UNIBERTSITATEA  
GIZAKIAREN BERARIAZKO EGIA  
BATERA BILATZEN DAN ETXEA**

Aurreko Aita Santuak, Benedikto XVI.ak, gogoeta sakona eskeini eta oparitu euskun Unibertsitateari buruz (San Lorenzo de El Escorial jauregian, 2011-08-19an). Haren hausnarketaren haritik, erreflexino batzuk jakinerazo eta aditzera emon gura neukez, benetan lagungarri izan dakiguzan gizatasunezko ibilbidea burutzeko.

### **1.- Unibertsitatea zer dan**

Unibertsitatearen definizioa eta esangurea da haren hitzal-diaren ardatza eta erdigunea. Unibertsitateko *irakasle gazteei* zuzendu eutsen berariaz bere diskurtsoa. Bonn uriko unibertsitatean irakasle modura berak emon zituan lehenengo pausuak gogoratuz bideratu eban berbaldia. Aldi haretan bizirik egozan oraindino bigarren mundu gerrako zauriak Alemaniako gizartean. Egia bihurtzen zan halan be ikasbide eta jakintzagai desbardinetao ikasleen artean hartu-emon ugaria, eta baita ikasleen kezka sakonei eta ardura larrienei erantzuna emoteko gurari bizia ere. Unibertsitatea zer dan ulertzeko esperientzia konkretua egin ebala dino Aita Santu ohiak: benetan “universitas” izan daitela nahi dau, hau da, “jakintzagai guztietan egia bilatzen daben ikasle eta irakasleek bat egitea”, edo behinola Alfontso hamargarrena erregeak esana eban lez

“jakintzagaiak ikasteko gurariaz eta helburuaz maisuek eta ikasleek osotzen daben alkartea”.

Zehazpen eta xehetasun handiagoz gogoratu dau “unibertsitea deitua izan dala eta orain ere deitua dala gizonaren/emakumearen, pertsonaren egia berezia bilatzen dan etxea izatera”. Hauxe da, Benediktoren arabera, unibertsitea erakunde sustatzera Eliza bultzatzen dauan arrazoia, kristau fedearen oinarrian finkatuz, Kristo “Logos” Kreatzailea (ik Jn 1,3) eta Jainkoaren irudi dan gizakia ardatz dituala.

Kristau “Barri Onak”, dino Benediktok, “kreatura dan orotan aurkitzen dau errazionaltasun bat, eta begiratzen deutso gizakiari errazionaltasuna dauan eta errazionaltasun hori eza-gutzera eta autortzera heldu daiteken kreatura modura”.

Hari honi jarraituz, “unibertsiteak desnaturalizatu behar ez dan jomuga haragitzen dau; holan, ez dau bere izaera aldatu behar, ez alkarriketa errazionalera itxita dagozan ideologiaren eragin pean, ezta merkatuaren logika etekinzaletara makurtuz, gizakia kontsumitzaile huts egiten daualarik”.

## 2.- Apur bat sakonduz

Jo dagigun pentsametauren barrura. Benediktok estu lotzen ditu unibertsitea eta egia. Eta egiaz diharduanean, ez dihardu egia formalaz, huts-hutsaz; gizakiaren “*proprium*” dakoaren egia dau aztergai. Eta egiaren neurria zera da: giza izateari eta bizitzari “forma emotea” testuinguru zabalagoan: munduaren, aldiaren, historiaren, orainaren eta geroaren, hemen eta orain pertsona izatearen, berariazko eta errepikaezina izatearen, batera materia, sozialitatea eta transzendentzia izatearen, askatasunez eta graziaz Jainkoaganako zabalik egoteko eta hari entzuteko gauza izatearen testuinguruan.

Egia eta ona, egia eta errealitatea, egia eta edertasuna (Aristotelesen hitzetan); bata “forma” da eta bestea “materia”. “Ez dago “substantziarik” alkarrengana bihurtzen ez badira”.

Ez dago edertasunik, ontasunik, errealtaterik..., ez badago egiarik.

Errazoiak eta fedea (konfiantza erradikalak) alkarrizketa behar dabe, errazoiak ulertzeko gaitasunez aurrera bultzatuz eta fedea errazoiak bihurtuz, fedea ere ulermenak estimua deuson fedea izan dadin bilatuz.

### 3.- Irakasleentzako bidea

Unibertsitateari buruzko ideia garbi horretatik abiatuta, unibertsitateko irakasle dan edozeinentzat, Benediktok **izateko** modu batzuk eta ezinbesteko **zeregin** batzuk ataratzen zituan. Irakasle gazteengana zuzentzen zan, baina eskaini izan dituan adierazpenak eta norabideak baliokoak dirala deritxot edozein irakaslerentzat eta unibertsitateko esperientzia bizi daben ikasle guztientzat ere. Hara labur:

**3.1.-** Misino garrantzitsu eta hil edo biziko honen erantzukizuna eta ohorea behar da sentidu.

Izan ere, eginkizun horrek luzatu eta barritu egiten dau “harako gizakien adimenaren aurrean fedea proposatzen eta estimarazotzen konprometidu izan diran gizon eta emakumeen katea”. Eta ez bakarrik irakaspenez, baita bizi izanez ere, nork berarengan haragitu, “gazteek benetako maisuak behar dabezalako; jakintzaren adar desbardineta egia osora zabalik dagozan pertsonak, jakintzagaien arteko alkarrizketa nork beraren barruan entzuten jakinez eta hori bizi izaten ahaleginduz; batez ere, egiantz bidean aurrera egiteko giza-kiak dauan ahalmenaz eta gaitasunaz konbentzimendu osoa daben pertsonak”.

**3.2.-** Aurretik esandakoaren eta jarritako zimenduaren gainean, zeregin nagusi bi azpimarratzen ditu Benediktok irakasleentzako.

Lehenengo eta behin, “argi izan zeuen gogoan egia osorako bideak giza izate dana konprometitzen dauala: adimena-

ren eta maitasunaren bidea dala, arrazoiarena eta sinismenarena. Ezin dogu aurrera egin edozein gauzaren ezagutzan, maitasunak mugitzen ez bagaitu, eta ezin dogu ezer maitatu beragan arrazionaltasunik ikusten ez badogu (ik “Caritas in veritate” 30).

Egia eta ona bat eginda badagoz, halantxe baita ezagutza eta maitasuna ere. Batasun horren ondorio da bizitzaren eta pentsamentuaren koherentzia, edozein hezitzaile jatorrengandik itxaron leiteken eta edozein hezitzaile jatorreri eskatzen jakon eredugarritasuna”.

Eta bigarren zeregina ere garrantzitsua da: izan gogoan egia bera beti dala goragokoa gure jomuga eta helmugak baino. Bilatu ahal izango dogu egia, eta hurreratu eta gerturatu ahal izango gara, baina ezingo dogu erabat geuganatu; ez gara gauza haren jabe izateko. Hobeto esanda, bera da gutaz jabetzen dana eta motibatzen gaituana. Halandaze, jarduera intelektualean eta irakaskuntzan, ezinbestezko birtutea da apaltasuna, honek babestuko gaitualako handiustearen menpean jaustetik. Izan ere, harropuzkeriak galera-  
zo eta itxi egiten dau egiaganako atea eta sarbidea. Ez ditugu geuregana erakarri behar ikasleak, ezpada ze guztiok bilatzen dogun egiarantz bideratu behar ditugu, benetan ahaleginduz “gatza baizen xume eta eraginkor izaten, zarata barik argi egiten dauan argiontzia-  
ren moduko izaten” (ik Mt 5,13-15).

- Azkenik, konklusino argia atara dau Benediktok erakutsiz: horrek guzti horrek gure begirada beti Kristogana bihurtzera konbidatzen gaituala, Haren aurpegian distiratzen daualako gu argitzen gaituan Egiak; eta Bera dala baita osotasun iraunkorrera gu zuzentzen gaituan Bidea ere, Bera dalako gure ondoan dagoan Bidazia, bere maitasunez gu sostengatzen gaituana. “Harengan sustraiturik, gidari onak izango zarie gazteentzat”.

***Ikasi bai, baina zertarako?***

Aztertu dogun guzti horrek, beste gogoeta bat egitera bultzatzen nau. Ba ete dauke zer ikusirik alkarren artean buru ondo antolatuak eta bizitza on eta jatorrak? Gogoeta honek lagunduko deusku ikasteak eta ezagutzak dauan zentzuna bilatzen, aztertzen eta sakontzen.

Ikasle batentzat garrantzitsua da, benetan, azterketa onak egitea eta emoitiz egokiak, nota onak, eskuratzea. Nota gorenak lortzea, oster, ez da beti giza garapenaren adierazle eta osotasun betea lortzeko bide ziur. Benetako korrelazioa behar da noten eta “cultura animi” dalakoaren artean. Dante Alighieri poeta handiak hauxe dino bere “Divina Comedia” ospetsuan: “Non fa scienza, senza lo ritener, l’aver inteso” (Paradiso V, 41-42). Ikasteko modu interesgarri arduratsuak zera eskatzen dau: gogoan sartzea eta mantentzea maite dana, norberaren haragiaren haragi, norberaren hazurraren hazur egitea.

Gure egunotan asko esaten eta asko idazten da gaitasunetaz. Europako Parlamentuak 2.008-04-23ko batzarrean deskribatu eban zer zan “konpetentzia”. Parlamentarien ustez hurrengo hauxe da: “gaitasun egiaztatua ezagutza, trebetasun eta ahalizate pertsonalak, sozialak eta metodologikoak erabiltzeko”; eta hori “lan, ikasketa eta garapen profesional eta pertsonalen egoeretan”. Eta bestea hau gehitzen eben: “erantzukizun eta autonomia” zentzunez.

Halan bere, formazinoan gaitasunak lortzea ez da dana. Beharrezkoak dira gaitasunak, baina baita ideiak ere. Ez da nahikoa “**jaridutea**”, egitea, ekoiztea ... baliokoa, efizientea eta eraginkorra, ganorazkoa eta emonkorra dana.

“**Izatea**” da beharrezko. Eta horretarako jagon, babestu eta landu egin behar da barrentasuna, doakotasuna, kontzientzia, autonomia, erantzukizuna, alkartasuna eta lagunkidetasuna. Adimenaren prestakuntzaz eta formazinoaz gain, askatasuna

eta maitatzeko gaitasuna ere landu behar dira, gizabidezko osotasuna eskuratu nahi bada. Eta hori holan izanik, Benedikto XVI.ak, aurreko Aita Santuak, beharrezkotzat jotzen eban baita Graziaren laguntza ere (Veronan, 2006-10-29an). Eta hurrengo hau gehitzen eban bere berbaldian: “Holantxe bakarrik gainditu daiteke familiak bizi dauan arrisku larria, **gure poderio teknikoaren hazkunde oso bizkorren eta gure baliabide moralen hazkunde neketsu eta motelaren arteko desorekarena**”.

Guztiz argi dago, bai, eskolatzea behar dala, benetako lanbide heziketa, baina baita heziketa zentzun sakon eta sendoan ere, promozinoa, oinarriko giza gaitasunen egituratze eta finkapena, bizitza bizi ahal izateko modu kontzientean, askean, arduradun eta solidarioan, munduan, besteekin, aldien eta adinen joanean, pertsonarteko hartu-emonen loturan, gizarte-bizitza historikoki antolatuan, norberaren izatearen barrentasunagazko begirunean eta besteekazko alkartasunik gorenean.

Bai garrantzitsua dala ikastea eta ondo ikastea! Ez bakarrik **burua** egoki eta jator antolatua izateko, ganoraz izan daiguzan begiak ikusteko, bihotza sentitzeko, gogoia asmatzeko, adimena sumatzeko, arrazoa hausnartzeko, jakituria ulertzeko, zuhertasuna sormen argiz jarduteko, barrentasuna lurrekoz gain transzendentziara edegita jokatzeko.

Beraz, ikaragarriko garrantzia dauko ondo ikasteak “**ganorazko bizitza ona**” lortzeko ere. Ikastea, holan, ez da izango bakar-bakarrik ezagutzeko eta jakiteko, ez da izango huts-hutsean gaitasunak eskuratzeko. Ezinbestezko bihurtzen da geure giza nortasuna lantzeko ere, nortasun pertsonala, soziala, erlijioso, era guztikoa.

Horra hor gure zeregina: **burua** eta **bizitza** ondo hornidu eta lantzea, argitasunaz gain askatasuna eta maitatzeko gaitasuna garatzea, ikasketa bete-betearen jomuga eta helburu sakona lortzeko. Badaukagu nondik ibili!!!

**GIZAKI IZAN GIZABIDEZ**  
**Buruz-bihotzez-bizimoduz**

Burutapen eta burubidez  
dantza irakina buruan  
buruargi eta buru-jantzi  
gogoeten olatuan  
ez buruharro ez burubero  
senaren muga barruan  
burujabetza eskura nahirik  
egiaren gun-gunean.

Bihozbera eta bihotz zabal  
bihotz jausien ondoan  
behartsu eta baztertuekin  
bihotzaldi oparoan  
bihozmindu eta zaurituentzat  
bihotz bigun eta beroan  
guztien ona bilatuz beti  
maitasunezko giroan.

Burua argi bihotza sano  
eginahalak egitera  
eginbehar eta eginbideak  
jardunean gauzatzera  
egitekoa egitadekin  
egiatan gorpuztera  
ekin eta ekin frutu emonez  
gizartea barritzera.

Gizon-emakume osotua:  
pentsa/aztertu  
senti/aukeratu  
bizi/jokatu  
dana erabat garatuz oreka harmonikoan:  
burua  
bihotza  
bizimodua...  
alkartzen dituana.

*Lontzo Zugazaga*